

Adoain-go Esteban agurgarriaren esku-iskribu bat

Duela hiru bat urte, aldizkari hontan argitaratu genituen Adoain-go Esteban agurgarriaren zenbait esku-iskribu¹. Iruñeko eliz barrutian gotzai-ondoko den Pedro M.[•] Zabalza jaunak Erroman aurkitu, eta fotokopiaturik ekarri zituen.

Hemezortzi orrialde ziren denak, eta hamalau eman genituen orduan. Beste lauak ez ziren ongi ulertzen. Idazkera xehe eta iluna dute, irakurtzeko zaila. Zeuden eran emateko ez zirela on iduritu zitzagun, eta hitzez hitz aldaturik emateko asmoa agertzen genuen. Horrela zioen V. G. jaunak sarrera gisa egin zion hitzaurre laburrean.

Hiru urteren buruan betetzen goaz orduan esana. Prediku haien hari bereko gaia da, noski. Zati labur bat. Egileak honela izendatu zuen bere lana: «Arrosarioaren hamabost misterioak hiru agerpenetan, eta 4. predikuan Maria Saindua ohoratzeko oharrak ematen dira»².

Argitaratuak diren orrialdeetan honako gai hauek sartzen ziren: 1) *Misterio gozosoak*. 2) *Dolorosak*, berak dioen bezala eta 3) *Mariaren deboziorako oharrak*.

Oraiko aldian, arrosarioaren aintzazko misterioei buruz emanak dituen orriak ekartzen ditugu.

Nunbait hitzaldiren bat emateko prestatu zituen. Mintzatzeko eginak dira, beraz eta XIX. mendean edozein elizetan entzuten ahal ziren antzezoak. Orduko eliz-predikuen kutsua dute eta ez gara bere mamian sartzen.

Hortaz kanpo, bi alde berezi ikusten ditugu idazki hauetan: egilearen nortasuna, batetik, eta euskara galdua den herrialdeko semea izatea, bestetik. Adoain, berez, Urraul-Alto bailarako herritxoa da, Nafarroan. Etxekoek emandako izena Pedro Francisco Marcuello Zabalza zen (1808-1880). Kaputxino sartzean Esteban hartu zuen, eta sort herriaren deitura. Bere aita Aietxu-ko semea zen, eta ama Adoain-goa.

Baina, ikus ditzagun lehenik bere idazkiak.

¹ *Escritos en vascuence del Venerable P. Esteban de Adoain. ZABALZA Pedro M.[•] y V. G. FLV (1975) pp. 249-269.*

² *Los Misterios del Rosario en tres instrucciones: y en la cuarta se dan avisos para honrar a María Santísima. Título: Misterios del Rosario.*

JOSÉ MARÍA SATRÚSTEGUI

MISTERIO GLORIAZCOAC

Maria Sainduari eguiten diren obore guzien artean andiena eta baliosena da arrengana maiz yoaitza eta humilitate andienarequin escatzia arren laguntza gure mundu huntaco irriscuetan, ocasione eta irriscuetan ez erortzeco particularqui tentatuac izaten garenean garbitasunaren contra. Yoaten bagara confidencia oso batequin izanen dugu Andre dena Mariaren protezionea, eta asqui dugu erratea agur Maria bat, edo artzea escarietan, Arrosario Saindua edo alchatza veguiac Maria Virginaren potreta bati e bien bada.

Ainbertze indar eta poderio baldin badu arrosarioac escuetan deabruaren contra, cer indar eta poderio eztu izanen erraten bada debocione andi batequin? Consideratuz Jesucristoren misterio principalenac?

Bertze vi partetan aditu duzue nola erran bear ditutzuen edo nola pensatu bear ditutzuen Misterio Gozosoac eta Dolorosac; bada orai adituco duzue nola erran bear ditutzuen Misterio Gloriazcoac, Zauzte.

Lembicico Misterio Gloriazcoan pentsatzen da, nola irur garren egunean ilqui cen Jesus glorios, guebiago ez iltzeco. Emen consideratu bear duzue, cein andia ote cen Jesucristoren gloria elqui izan cenean tombatic! Infernu guzia guelditu cen icaraturic eta guizon Adanen seme guciac libro deabruaren esclavotasunetic. Eta ezta izanen bada herroquerietan andiena eta itsuena, Jesucristoc libratu ondoan, ainbertze sufrituez gueroz, berriz itzultzea deabru beraren azpira!

Pensazazue, eta cergicat viurtzen dire guizonak lehenagoco esclavotasunera? Ah! Icusoico duzue, satisfacione itsusi batengatic ceinac etziren venturatzzen guizonen presencian eguitera. Oh ene anai m(aitea) utzazu becatua eta otoiz dezagun Maria Virginia ardietsi diezagula Jesucristoren amorioa ez guehiago erortzeco deabruaren atzaparretan, eta.

Vigarren Misterioan contemplatzen da nola Jesucristo gure Salvatzailea berrogei egun pasatu ondoan mundu huntan piztuez gueroz igan cen zerurat Maria Sainduaren eta Apostoluen presencian. Emen consideratu bear duzue Jesucristorenganik erreccibitu ditugun fagore eta graciak, cein andiac, cein miragarriac diren!

Gure lembicico guratsuec becatua eguin zuten bezain fite galdu zuten ceruco drechua, ceruco ateac etsiac edo cerratuac izan ciren eta Aingeru bat ezarri cen expta batequin vier sartzera ez uzteco. Oh becatu madaricatu! bainan alegratu bear gara ceren Jesucristoc idequi dizquigun edo darozquigun ceruco ateac; eta guc maitatzen badugu zabala instente gucietan izanen ditugu ateac idoquiac. Bainan ezta izanen miseria andi bat Jesucristoc vere eriotzearequin ceruco ateac idequi dituenez gueroz, gure faltaz, guretzat cerra daitetzen! Bai e.a.m. miseria andia, eta bizquitartean placer batengatic aban-

ADOAIN-GO ESTEBAN AGURGARRIAREN ESKU-ISKRIBU BAT

donatzen da cerua, atsegin guzien echea, eta gracia gucien toquia, Saindu, Aingeru, Jesus, eta Mariaren compainia eta joaten da infernura malur eta maledicione gucien lecura.

Emen gure viotz guciarequin otoiz dezagun arguidetzala gure entendimendua, izpirituac, ezagutzeo mundu huntaco gauzac diren bezala, pasatzen direla itzala bezala eta cein andiac diren Jesus gure Aitac ofreitzen dauzquigunac.

Irur garen Misterioan contemplatzen da, nola Jesucristoc igorri zuen Izpiritu Saindua Mendecoste egunean Cenaculo deitzen cen (ezteira) toquia, non bildiac ceuden Apostoluac, Maria Virginaren compainian. Emen pensatu bear duzue, Apostoluac Izpiritu Saindua errecibitu baino lehen cein flacoac, eta cein otzac ciren Jaincoaren amorian; bada hau gicia agueri da Jesucristoren pasionean ceren batec saltzen du, bertze batec ucatzen du, eta gucieci abandonatzen dute. Bainan Mendecoste egunean izpiritu Saindua errecibitu ondoan, eztire lehenagoko flaco eta otzec; ez, guelditzen dire Jaincoaren amorioz beteac eta onengatic ichurtzen dute beren odol gicia.

Oh amorio divinoa! Arrazoin andiarequin erraten zuen San Agustinec, qui amat non laborat. Jaincoa maitatzen duenac ez ditu sentitzen trabailuak, ez ditu sufritzen gurutzeac; Jaincoa maite duena alegratzen da miserietan, gozatzen da gurutze eta persecucionetan... qui amat non laborat.

Ea, veraz, emen escatu bear diogu gure Ama Virgina Mariari, erdietsi diezagula amorio Sainduaren dohaina, eta orduan mundu huntaco miseria, gurutze, eta... guretzat izanen dire eztiac.

Laugarren Misterioan contemplatzen da, nola Maria S^a amabi urte pasatuez guero mundu huntan Jesucristoren eriotzearen ondoan eraman zuten Aingueruec cerurat. Emen pensatzen da nolacoa izan cen Maria Sainduaren eriotzea. Oh cein yustoia, cein ona, cein eztia! Mariac icusten du arribatzen dela eriotzea, bainan icusten du alegraciaz, consolamenduz eta tranquilitatez beteric. Eztire icusten arren baitan inquietamendua, icariac, lotsac, eta bel-durrac; ez, eta cergatic? Ceren Andre dena Mariaren vicia beti izan baizen ona, beti yustoia.

Apostoluac eta Aingueruec arritzen dira Maria ahala icustiaz. Bainan badaquizue San Agustinec erraten duena, nolacoa den vicia, ahala nolacoa dela eriotzea. Eta gure eriotzea nolacoa izanen ote da? Ah, sobera erran dezaquet eztela izanen alacoa! Ceren momentu artan orai eguiten ditugun becatu eta uts guziac presentatuco dira inquietatzen, orduan pensamendua, gogoetac... Bainan adizazu, eta consola zaite, zuc ustean baduzu becatua, bici gaisto eta escandalosa, eta ohoratzen baduzu Maria, onec Amaric oberenac bezala lagunduko dizu eriotzeo orduan eta sentituco duzu Virginaren lagun ta arren debota gucieci sentitu eta ezagutu duten bezala.

JOSÉ MARÍA SATRÚSTEGUI

Eta hau gucia ordu artan izaiteco yarri zaite yadanic momentu huntan berean Maria Sainduaren protezionen azpian, eta atazazu zu(re) patrointzat, zere amatzat; bainan beti cervitzeco delibera(cio)ne fermu eta constant batequin.

Vortzgarren Misterioan consideratzen da, nola gure Ama V. Maria izan cen coronatua Jesus vere semeaganic, eta denbora berean consideratzen da Saindu gucien gloria. Emen arzen Misterio huntan consideratu bear dugu Maria Saindua Jaincoaganic coronatua izan cenean ceruan seinalatua izan cela gure avocatatzat, eta avocata baten oficio berac egun bear dituela bere debotequin.

Amadeo doctrinac erraten du, Maria birginac beti eta continuo galdegiten duela gure fagoretan: adstat B. Virgo semper interpellans pro nobis. Eguia da Andre dena-garbiak otoiak duela bere semea gucientzat, bainan bere(ci) qui arrengana yoaten direnentzat, eta orren laguntza confidencia oso batequin escatzen dutenentzat. Orrengatic beti eta instenteoro escatu bear diogu San Felipe Neriak, Maria Jaincoaren Ama otoiak Jesus gugatic, Elizarequin, Maria Saindua Jaincoaren Ama, egizku otoiak gu becatorentzat orai eta gure heriotzeco oreanean. Halabiz.

Ob cein doatsuac izanen garen bear den debocione eta atencionarequin baldin errezzatzen badugu Arrosario Saindua! Ob cein fite erreglatuko ditezquien guiristinoen costuma tzarrac! Nola icusico genituzquien bertuac vicizen toquian eta practica onac amoriozko hele itsusien plazan.

Fite ezagutu zituen gure Aita San Dominicoc arrosarioaren efectu hunac Cemba heretico eizuen convertitu, cemba guiristino atera etziren becatutic? Cemba extire asi vici saindu baten eguiten! Cembatec extute egun eriotze saindu bat?

Gure Eliza Ama Sainduac icusiric devocione honec mundu gucian eguiten dituen gauza miragarriak vere partetic egun du abal gucia abratis arazteco indulgenciez abala parcialez nola plenariez. Sei Errromako Aita Sainduec anitz indulgenciequin abratsta dute otoitz saindu hau. Arrosario parte bat erraten duenac irabazten tu irur ogoi eta amar mila urteko indulgenciac, eta irur parteac erraten dituenac, hau da arrosario osoa, irabazten ditu laurogoi mila urte, eta Maria Sainduaren Arrosarioko caperan erraten duenac anitz guehiago.

Agur Maria eta Gure aita bacochan irabazten dire eun egunen indulgencia. Alaber Maria Sainduaren besta principaletan irabazten da indulgencia plenaria confesatuz eta Jesucristoren Gorputza erreccibituz. Ilabete gucian errezzatzen duenac irabazten du indulgencia plenaria confesatuz eta comunitatuz nhai duen egunean. Ontas landa anitz indulgencia dira irabazten direnak. Arrosario Sainduaren acabanzan erraten dire Virgina Mariaren letaniac, eta Sisto vortzgarnac eta Benedicto amairurgarnac errazuten aldi bacochan

ADOAIN-GO ESTEBAN AGURGARRIAREN ESKU-ISKRIBU BAT

irabazten direla verreun egunen indulgenciac, eta Pio zazpigarnac irur-eun egun aldi bacochan. Eta ontas landa indulgencia plenaria Maria Sainduaren vortz besta principalenetan. Oc dire, Concepcione, Nativitate, Anunciacione, Purificacione eta Asuncione, confesatuz eta comunicatuz (.....)

Beraz cer erran dezaket nic guehiago Maria Sainduaren (ohore)tan? Aditu duzue nola errezzatu bear duzuen misterio gozosoac, dolorosac eta gloriosac consideratuz. Aditu duzue cer devocione, atencione eta afetuequin erran bear duzuen Arrosario Saindua. (-)ai bada eztut erraten bertzeric, baizic deaburac berac erran zuena, hau da, Maria Sainduaren debocionearren azpian dagona, eta perseveranciarequin arrosarioa errezzatzen duena extela galduco. Hala erran cion deabruac San Dominicori. Saindu honequin asiniz han arrosarioa esplicatzen, eta honequin finituco dut. Adizazue...

Reyanesec erraten du, Florenciaco birian vici cen Benita deitzen cen emaztequi escandalosa bat. Hiri artara arribatu cen predicatorera gure aita San Dominico. Curiositatez joan cen aditzera emaztequi hura. Bainan Jainkoak ukitu zion biotza eta instantean yoan cen Sainduarengana eta erran cion nahi cela confesatu. San Dominicoc aditu zuen, confesatu eta oraino eman cion asolucionea, eta penitenciaz eman cion Arrosario Saindua. Bainan miserablea bereala itzuli izan cen becatura. Sainduac aditu zuen erori cela becatuan, eta bereala yoan cen emaztequi arrengana eta berri berritan confesatu zuen.

Egun batez Jaincoac eracutsi cion infernua eta han icusi zituen anitz arrengatic damnatuac cirela. Bereala ikusi zuen liburu bat non ceuden bere becatu guciac tzenbatuac. Orduan estonaturic, arrituric, bainan confidenziaz beteric yoan cen Maria Sainduarengana, eta Mariac ardietsi cion penitencia eguiteco denbora. Ordu artaric asi cen penitencia eguiten, bainan beti oroitzentzen cen liburu artan icusi cituen becatuez, eta abala erraten cion vere Ama Virginari quenzetzala becatuac liburu artaric. Maria Saindua aguertu cizayon eta erran cion barcatuac cirela becatu guciac, bainan beti oroitzeko becatuez, Jaincoaren misericordiaz, pasione sainduaz, eta oroitzeko anitz becatu gutia goequin infernura yoan cirela; eta erran cion egun artan berean zortzi urteco aur batec infernura yoan bear zuela becatu batengatic.

OHARRAK

Aita Adoainen euskara Ipar aldekoa da gehien bat. Hiztegian eta joseran ageri da. Deliberacione fermu erabiltzen du, asmo sendo edo erdal propósito firme itzultzeko. Fite ezagutu cituen dio beste nimbait, laster, berehala ezagutu zituela agertzera emateko. Begiratu batekin ikusten da.

JOSÉ MARÍA SATRÚSTEGUI

Horrek ez du esan nahi txikitán etxeko euskalarik ikasi ez zuenik. 1808an jaio zen, urriaren hamekan. Bere bizia aztertu duen aita Ildefonso Ziaurizkoak dioen bezala, Adoainen euskara egiten zen orduan, gero laster galduko bazeen ere. Ikasi zuen, beraz, gurasoen euskara³.

1928an sartu bazeen frailetxean, hogei urtetan utziko zuen bere herriko hizkuntza entzutez, eta meza eman ondoan misiolari izan zen Ameriketan. Ez da harritzekoa hirurogeita bost urteetan Ipar Euskal Herrira itzultzean (1873), ahanztorraturik edo erdi galdurik eukitzea txiki denborako mintzaira.

Baionan egondu zela badakigu eta, nahi eta ez, berritu behar izango zuen euskara, nahi baldin bazuen predikuren bat eman. Bere egonaldi hon-tako esku iskribuak izan daitezke.

Idazkera hangotua agertzen du: *bau, hura, mundu buntako, lehen, hiria, ohore, halabiz, gehiago*, eta abar.

Batzutan bikotasuna ikusten da: *ilqui, elqui* = berpiztu. «*Lembicico Misterio gloriazcoan... nola irur garren egunean ilquicen Jesus glorios, gue-hiago ez iltzeco.*» Eta aurrerago: «*Cein andia ote cen J. C-ren gloria elqui izan cenean tombatic.*». *Idequi, idoqui*, e.a.

Ortografian ere berdin gertatzen zaio: *heriotzea*, eta *eriotzea*.

Zenbait aldiz gaizki hartua du idazkera: «Apostoluak eta Aingeruak arritzen dira Maria *abala* icustiaz...» «Nolacoa den vicia, *abalacoa* dela eriotzea». Eta gero honela dio: «... sobera erran dezaket (gure eriotzea) ez dela izanen *alacoa*». *Hala, balacoa* idatzi beharrean.

Dirudienez ez zuen hizkuntzaz erabat jabetzeko astirik izan. 1880an hil zen Sanlukar Barramedakoan.

Horrexegatik, behar bada bere hizkuntzan badira txikitatik gordetako punduren batzu, Sakonki begiratzeko gauza litzateke.

Esate baterako, badira hitzen batzu ahoskatzeo gogorrak: *abrats, abratsta*. «Gure Eliza Ama Sainduak... vere partetic eguin du ahal gucia *abratsappazteco* indulgencias ahala parcialez nola plenariez. Sei Errromaco Aita Sainduec anitz indulgencias *abratsta* dute otoitz saindu hau.»

Drechua = eskubidea. Hego aldeko kutsua duela iduri du, erdal *derecho* iturritzat harturik. «Gure lembicico guratsuec becatua eguin zuten bezain fite galdu zuten ceruko *drechua*.»

Aditzean ikusten da zalantza gehiago. Zuzenketa batean honela idatzi zuen lehenik: «Oh cein fite *erreglatuco* diren guiristinoen costuma tzarrac!

³ P. Ildefonso de Cráuriz, *Vida del Siervo de Dios P. Fr. Esteban de Adoain, capuchino misionero apostólico en América y España*. (Barcelona, 1913), pp. 335-336.

Deei batengatze abandonatzena carne, Atxocin guzien o har,
 Negraia guzien teguria, laindu, hingueru, formela, Marwan
 impostaia eta, zailanda inferiorra, malia etxekoak dione
 guzien orreka. Euren gune triplu guzien negun ostendragatu
 arguidok eta gure entzundimendua eragiteko mundutzen
 leku, gaurare dizen berria, paraderidela itxala berria eta
 ekin andrea dizen Jesus gune astuek operekoen gipuztak.
 X. Urri garaian Otxistoriaren kontzeptuak henda, nola Ikeristak
 igorrigabu igorritu laindua beraudekoak eguneroa leinabiko deitzen
 den ikotza, non bildiaz, euden Apotekak, Maria Virginea
 kompasioan. Eman pensatukoaz, Apotekak igorritu laindua
 errekabetu hiru hizken ekin hizkia, eta ekin oñue ekin hizken
 ren amoria, hain hain guzien ikuspegiak Ikeristak jasotzen
 ekin batzuk, saltendu, berde hizken erakundeak, eta gizarteak. Hura Dina
 izendatu, bainan Ikeristako eginak igorritu laindua errekabetu
 ondoan, eibileko hizkagoak flacoak eta oñuek, ez, gueñetan
 dire Ikeristaren amorio, beteak eta mezuak, salustiendak
 beren oñue guzien. Oh amorio dinezuz! arrazoiak, diarogun
 erratzak, Agustines, gure arrosak non laborat, hain da hiz
 saltendueneak e-ditu lehentzia tratilak, e-ditu lehentzia gure
 heine, bainua hizkak, gure arrosak algorriaketa lehentzia, non
 heida, gureak oñuek e-ditu lehentzia, gure arrosak non laborat,
 Ca. Uterak, emakideak, euskal gure arrosak, Maria Virginea, berronak,
 arrietakideak, gure arrosak lainduak, dohoinak, eta ordinarie
 mundu hizkienak, gure arrosak, gure arrosak iranetako
 erizak.

X. Angaran Otxistoriaren kontzeptuak henda, nola Ikeristak
 amabi oñue gure arrosak, Ikeristaren eriketean ondoren
 Erreko urolak hingueren Corintak. Eman pensatzenak zirela
 eta izanen hizka lainduaren eriketea. Oñuek gureta, ekin
 oña, ekin etxialdak eta ekin arrizabetu dela eriketea,
 bainan oñulekak algorriak, consolak, ekin txangur
 bitzak, betariek, eibileko hizken arrazoiak, inguruetan. Dago
 ikeriak, hizkak eta hizkak, eta hizkak, eta hizkak, ekin txangur
 Andra denak, hizka beti izanbilean oñua, hizka guzka. Apo
 tekak eta, hinguerak arrizabetu dela eriketea. Maria abelarriko
 bainan oñuleguia, San Agustines erratzak, nolak
 den oñua abelarriko dela eriketea. Eta gure eriketean
 hizkak izanen oñua da! Ah! hizkak corrikoak estela izanen
 hizkak, hizkak erromesak, hizkak erromesak, hizkak
 eta hizkak, gure arrosak, gure arrosak, gure arrosak
 izanenak, gure arrosak. Baina edo ekin; eta consolak, ekin
 urolak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak
 hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak
 hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak
 hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak, hizkak

ADOAIN-GO ESTEBAN AGURGARRIAREN ESKU-ISKRIBU BAT

Nola *icusicu guenituen bertuteac...*» Gero, lerro gainean beste era hontara ageri da: «*erregratuko ditezquien*», «*icusicu guenituzquien*».

Beste pasarte batean ere nolabaiteco duda-muda agertzen du: «bainan alegratu bear gara ceren Jesucristoc *idequi gaituen* ceruco ateac...». Aditza marrazturic, beste era hontara zuzentzen du lerro gainean: «...ceren Jesucristoc *idequi dizquigan edo darozquigan*». Alegratu hitza gaztela aldeko emaitza da.

Ez da nere asmoa iskribuaren barne azterketa sakona egitea, bide emaitza baizik. Euskara galdua den herrialde baten lekuko gerta liteke zenbait hitz eta asamesetan.

José María SATRÚSTEGUI

Numerario de la Real Academia de la
Lengua Vasca, y correspondiente de
Instituto Americano de Estudios Vascos

RESUMEN

El manuscrito vasco del P. Esteban de Adoain (1808-1880) que transcribimos, procede del *Archivo de la Sagrada Congregación para las causas de los Santos*, en Roma. Figura en el legajo titulado «Escritos del Venerable Siervo de Dios P. Esteban de Adoain, cap.».

Fue fotocopiado y traído por el M. I. D. Pedro María Zabalza, Pro-Vicario del Arzobispado de Pamplona, para su inclusión en la revista FLV, que publicó en parte, con el título *Escritos en vascuence del Venerable P. Esteban de Adoain* (núm. 20, 1975, pp. 249-269).

El original lleva el siguiente encabezamiento general: «Los Misterios del Rosario en tres instrucciones: y en la cuarta se dan avisos para honrar a María Santísima». Consta de 18 páginas, de las que catorce fueron reproducidas en facsímil por la revista en aquella ocasión.

Con la transcripción de esta última parte, que por la borrosa calidad de la fotocopia no pudo ser incluida entonces, completamos la entrega de don Pedro María Zabalza.

RESUMÉ

Le manuscrit basque du Père Esteban d'Adoain (1808-1880) que nous transcrivons, provient des *Archives de la Sacrée Congrégation pour les causes des Saints*, de Rome. On le trouve dans la liasse ayant pour titre «Escritos del Venerable Siervo de Dios P. Esteban de Adoain, cap.».

JOSÉ MARÍA SATRÚSTEGUI

Il fût photocopié et ramené par le chanoine P. M. Zabalza, Vicaire Général de l'archevêché de Pampelune, pour sa publication dans la revue FLV., et fût publié en partie avec le titre «*Escritos en vascuence del Venerable P. Esteban de Adoain*» (20, 1975, pp. 249-269).

L'original porte l'en-tête suivant: «*Los Misterios del Rosario en tres instrucciones, y en la cuarta se dan avisos para honrar a María Santísima*». Il compte 18 pages desquelles 14 furent reproduites en fac-similé alors par la revue.

Avec la transcription de cette dernière partie, qui par la mauvaise qualité de la photocopie ne pût être incluse alors, nous complétons la remise de P. M. Zabalza.

BIBLIOGRAFIA

ARBEIZA, Teófilo de, *Esteban de Adoain. Temas de cultura popular* (Diputación Foral de Navarra) núm. 50.

ARCHIVO de la Sagrada Congregación para las Causas de los Santos. Legajo: *Escritos del Venerable Siervo de Dios P. Esteban de Adoain*. Curia de Roma.

CIÁURRIZ, Ildefonso de, *Vida del Siervo de Dios P. Fr. Esteban de Adoain, capuchino misionero apostólico en América y España*. (Barcelona, 1913).

ESTELLA, Gumersindo de, *Lo portentoso del Padre Esteban de Adoain* Imp. PP. Capuchinos, Pamplona, 1950.

INTZA'R, Damaso, *Adoain-go Esteban Aita. Misolari arrigarria. Aita Arbeiza-k erdaraz egindakoaren itzulpena*. (Iruña, 1970).

OTHOIZLARI, *Aita Extebe Adoain*. (Belloc, Urt, 1960) 24, pp. 304-307

PEÑA SANTIAGO L. P., *San Martín J. Estudio etnográfico del valle de Urraúl Alto, "Munibe"* (San Sebastián, 1966) XVIII, p. 117.

RIEZU, Crispín de, *Necrológico de los Frailes Menores Capuchinos de Navarra-Cantabria-Aragón* (Pamplona, 1958).

SAN MARTÍN, J., *Vocabulario euskaro adicional del Padre Esteban de Adoain*. FLV (1977) 26, pp. 271-280.

ZABALZA, P. M., *Escritos en vascuence del Venerable P. Esteban de Adoain*. FLV. (1975) 20, pp. 249-269.